

SORGIÑEN AMAIERA

Askotan entzuna dot, sorgiñak, Eibar'en eskopetak egiten asi ziranean amaitu zirala. Baiña egia beste alde batetik doa.

Amasei eta amazpigarren gizaldian jende askok sorgiñetan sinisten eban arren, ez eben danak siniskeri onegaz burua galdu.

Lope de Isasti'k autortu eban, "abade eta fraile askok ez dabe sorgiñetan sinisten, eta pulpituetatik ez dala sorgiñik esaten dabe".

Nafarroa Erreiñuko agintariak kezkaz beterik Salazar'ko Alonso gizon jakintsu eta zentzundunari agindu eutsuen, sorgin arazo onetan zer egia eta zer guzurra izan zeiteken argi eta zeatz jakiteko.

Gizon jakintsu onek Nafarroa'ko Baztan aldean 1.820 pertsona aurkitu ebazan jendeak sorgintzat eukazanak. Baiña guzti onein artean Salazar'ek 420 pertsona bakarrik ontzat artu ebazan lekuko edo testigu izateko balio ebenak, beste enparaduak zentzunbako edo burubakotzat baztertuz, edo ume txikiak ziralako, eta buruz nastuak zirala ikusi ebalako. Eta asi zan azterketak zentzu-nez eta benetan egiten.

AKELARREAK

Salazar'ek aurkitu eban, 26 leku zirala sorgiñen batzarrak egiten ziran Akelarreak: Donestebe, Zubieta, Sunbilla, Donamaria, Alzate eta abar... Baiña sorgin-batzar-leku onei buruz ez eban Salazar'ek gauza garbirik aurkitu, "bi leku izan ezik", diño berak.

LAPIKOKO GANTZUAK

22 lapiko aurkitu ebazan gantzu eta auts kaltegarritz beteak, eta botikarioak aztertu ondoren "barruko nasteak ez zirala kaltegarriak" epaia emon eben. Badaezpada be "naste ori txakurrai jateko emon jaken, eta oneik ez eben kalterik artu".

AKELARRERA EGAZ?

Sorgin batzuk "euli antzera" joaten zirala autortu eben, beste batzuk osteria "bela baten antzera", beste batzuk "ez dakiela zelan" autortu eben. Batzuk autortu eben: leioen eta ateen zirrikuetatik urtenda, beste batzuk ke-zuloetatik gora urtenda joaten zirala Akelarrera.

Beste batzuk autortu eben: eurak Akelarren egozan bitartean deabrua geratzen zala oian euren orde, etxe-koak Akelarrera joan zirala jakin ez dagien.

SORGIÑEN GUZURRAK

Auzitegiko aretoan egoala sorgin batek autortu eban: "leku aretan bertan goiko leioan zortzi sorgin egozala

epailleai begira". Baiña guk, diño Salazar'ek, ez genduan ezer olakorik ikusten.

Beste mutil batek autortu eban "euren errian zapo batzuk arrika il ebezala, eta zapo orreik deabrukumeak zirala".

Beste sorgin batek esan eban "berak auzitegiko aretoan, gu gengozan lekuan, deabrua, sorgiñen Jauna, ikusten ebala", baiña guk an ez genduan deabrurik ikusten, diño Salazar'ek.

Beste neska batek autortu eban "deabruak oiñetako iru beatz kendu eutsazala berari", baiña guk ondo begirata, ori ez zala egia garbi ikusi genduan.

DEABRUAGAZ EZKONTZAN

Lizardi'tar Kataliña'k autortu eban: "bera Akelarren deabruagaz alkartu zanean, odol asko bota ebala lurre-ra", baiña lekuko batzuk neska onek esandako lekura joanda, ez eben odol arrastorik aurkitu. Baita andra batzuk, guk aginduta, neska onen gorputza aztertu eben, eta birjiña zala ikusi eben.

Beste andra batek autortu eban "deabruagaz alkartu ondoren zapoak jaioko jakozala", baiña au sinistea zorakeri andia dala nok ez dau ikusten?

Donestebe'ko beste neska batzuk autortu eben "deabruagaz Akelarren ezkontzaz alkartzen zirala", baiña andra batzuk neska onein gorputzak ondo begiratu ondoren, dontzellak zirala autortu eben...

BESTE GUZUR BATZUK

Egia bazan sorgiñak, Akelarrera joateko, ate eta leioen zirrikuetatik urteten zirala, zelan ez eben iges egiten espetxeko leioetatik zear, egaz, auzitegiko epai zorrotzetik alde egiteko?

Logroño'ko epailleak erdaldunak ziran, eta sorgintzat epaituak euskaldun utsak, zelan konpontzen ete ziran alkar ulertzeko?

Azkenez, Salazar Jaunak garbi autortzen dau Logroño'ko auzitegian sorgiñen aurka egindako auziak "ganorabako auziak izan zirala", testigu edo lekuko buruarin eta nastuagatik, epailleen sinist-errezagatik, baita epaituen bildurragatik...

Sorgiñai buruz beste milla gauza idatzi daitekez, baiña, jakin bear da aldi aretan Ingalterra, Frantzia eta beste lurralde askotan ziur-ziur sorgiñetan askok sinisten ebela, eta millaka sorgin zigortuak eta bizirik erreak izan zirala.

GOIKOTXEA'TAR IÑAKI